

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Nafarroako Gobernuaren laguntza "irmo eta leiala" eskaini du presoei arreta egokia emateko

Barne ministroa buru izan duen Iruñeko espetxe berriko inaugurazio-ekitaldian esan ditu hitz horiek

Martes, 05 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina-k Espainiako Gobernuari Foru Gobernuaren laguntza "irmo eta leiala" eskaini dio gaur "espetxe baten benetako helburuak lortzeko, hau da, espetxean dauden pertsonen arreta egokia emateko, haiek berriz hez daitezten eta pertsonalki gizarteratu eta lanera daitezten".

Yolanda Barcinak adierazpen horiek ["Iruñea I" espetxe eta gizarteratzeko zentro berriaren](#) inaugurazio-ekitaldian egin ditu. Ekitaldi horren buru izan da Barne ministro Jorge Fernández, eta harekin batera izan dira, beste agintari batzuen artean, Espetxeetako idazkari nagusi Ángel Yuste; Foru Komunitateko Gobernuko ordezkari Carmen Alba eta Iruñeko alkate Enrique Maya.

115,5 milioi euroko inbertsioa izan duten instalazio berriak Santa Luziako muinoan daude. 1907. urtean eraiki zen San Juan Iruñeko auzoko egungo espetxea ordeztuko du, "denboraren poderioz eta hainbat egiturazko arrazoi nahiz arrazoi funtzionalengatik zaharkituta geratu dena", adierazi du Nafarroako Lehendakariak.

Yolanda Barcinak aipatu du inaugurazio-ekitaldi honekin amaiera ematen zaiola "behar handiko proiektu garrantzitsu bati; Espainiako Gobernuak bere eskumen propioetan oinarrituta egindako proiektua, baina duela hamarraldi askotatik Nafarroako Gobernuak ere sustatu eta babestutakoa". Alde horretatik, gogora ekarri du bi administrazioek 1989an hitzarmen bat izenpetu zutela "ahaleginen bilgunea argi eta garbi zehaztuz".

Horrenbestez, Espainiako Gobernuari eskerrak eman dizkio azpiegitura "berri eta egoki" hori eraikitzeagatik. Bi zentro izango ditu: espetxea bera eta gizarteratzeko zentroa. Lehenengoak bizitzeko 504 gela ditu eta 120 plaza osagarri; gizarteratzeko zentroak, berriz, 50 gela bikoitz eta behaketarako banako beste 3.



Barcina Lehendakaria Barne ministroarekin batera izan da espetxe berriaren inaugurazioan.

Azpiegitura berriak honako ekipamendu hau izango du: garbitegia, okindegia, ikasgelak, liburutegia, kiroldegia, ekoizpeneko, okupazioko eta prestakuntzako tailerrak; haiez gain, senideekin, abokatuekin eta epaileekin komunikatzeko 20 mintzategi, haietako bat mugikortasun mugaturako egokitutakoa.